



*Zuzendaritza Batzordearen erabakia, maiatzaren 30ekoa, haur-eskolan irakasleen ordezkapenatarako lan poltsaren funtzionamendua onartzen duena.*

Zuzendaritza Batzordeak, maiatzaren 30ean, honako erabakia hartu du:

“Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoko 2024ko urtarrilak 17ko Zuzendaritza Batzordean hartutako erabakiaren bidez, (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 20. zenbakia, urtarrilaren 29koa) aipatu haur-eskolan irakasleen ordezkapenatarako lan poltsa osatzeko hautaketa prozesuaren deialdia onartu zen”

Horregatik guztiagatik, Zuzendaritza Batzordeak, aho batez, honakoa

**ERABAKI DU**

Lehenengoa.- Irakasleen ordezkapenatarako lan poltsaren inguruko funtzionamenduaren honako zehaztapenak hauek onartzea:

- Lan poltsa hau indarrean egongo da berri bat onartu arte (hautaketa prozesu berri baterako deialdia egin ondoren sortutakoa, alegia).
- Ordezkapen luze baterako beharra sortuz gero, lehen postuan dagoenari eskainiko zaio
- Aste bat baino gutxiagoko ordezkapena denean, ikasle talde horrekin urte horretan lan egin duen irakasle-langileari eskainiko zaio lana.
- Ordezkapen baterako deitzen zaion langileak hiru aldiz ezetz esan ahalko du, eta ondorioz zerrendan postua mantendu, baldin eta ondorengo arrazoiak justifikatzen baditu:
  - Lan kontratuagatik (ziurtagiria aurkeztu beharko du)
  - Mediku-bajagatik (ziurtagiria aurkeztu beharko du)
    - Izan arrazoi bat edo bestea, berriz lanerako moduan dagoenean, langilearen ardura izango da hori horrela dela adieraztea.
    - Ez bada aurrean aipatutako arrazoirik, zerrendaren azken postura pasako da
- Berarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izan bada hiru kasutan baino gehiagotan, zerrendako azken postura igaroko da.
- Ikasturte bukaeran meritu eta eskarmentuen ziurtagiriak aurkezten dituztenei puntuazioa eguneratuko zaie. Langileen esku geratuko da aurkeztea. Oiartzungo Udal ikastolan egindako lana ofizioz baloratuko da.
- Gerta daiteke momentu horretan, lehenengo postuan dagoen irakasle- langile hori ordezkapen motz bat betetzen aritzea, salbuespen honetan, ordezkapen motza uzteko eta luzea eskaintzeko aukera zuzendariak dagokion irizpide pedagogikoaren baitan baloratuko du, ikasle taldeari kalterik egin gabe.

Oiartzunen, 2024ko maiatzaren 30ean

LEHENDAKARIA

**JOANA  
MENDIBOURE  
- X37472445**

Digitalki sinatuta  
norengandik: JOANA  
MENDIBOURE - X37472445  
Data: 2024.06.04 14:02:04  
+02'00'

IDAZKARIA